

## ADAN ETA EBA

Erriak ta gizon-emakumeok, beti gabiltza geure susterrak ta geure elburuak jakin naiez. Sustrai bako erriak ta gizonak, udazkenean ara ta ona dabiltzan arbola orriaren antza dirudi. Bibliaren lenengo kapituluak be, erri ta gizonen barnean sortzen diran galdera batzuei erantzuteko idatziak dira: Nondik gatoz? Nora goaz? Zergaitik izakia ta zergaitik ez, ez izakia? Zein da gizadiaren asiera ta bere elburua? Zergaitik gizonen gaitzak ta alkar ilketak?

Onexek dira, gitxi gorabera, garai guztietan egin diran pregunta garrantzitsuenak. Orain, ia iru milla urte, Biblia idazten jardun ebenak be pregunta onei erantzuten alegindu ziran. Gaur be biotz barnean sortzen diran preguntak bardintsuak dira. Zorritzarrez gaurko erantzunak naiko azalekoak diranez, or gabiltza noraezean, Viktor E. Frankl siko-analistak agirian ipini dauskunez. Keska bardinean ari dira Euskal-erriko gotzaiak be:

«Izan ere, gure gizartea gaixoturik aurkitzen da bizi izateko naikundean. Erosotasunezko zibilizazioak bizi izateko bideak eskañiko dizkio, baña ez bizi izateko arrazoiak. (...) Abereak ibilbidean aurrera egin dezake, nora doan jakin gabe. Gizonak, ordea, ez dezake luzaro aurrera egin, irtenbiderik gabeko kaleetan». (Eliza, alkarte ebanjelizatzailea, 140).

Ta barrero be gogoratuko dauskue gure Gotzaiak euren az-

kenengo ain oiartzun aundiko idazkian:

«Zibilizazioaren krisialdi honek babesik gabe utzi du gazteen belaunaldiaren zati bat, ideialen askatasuna dela bide; jokatzeko arrazoibiderik gabe aurkitzen da, balioen iluntasuna dela bide; eta noraezean, jokabide auek lur jo dutelako. Izpirituaren eremu erlatibo onetan, gazteriak hustasunaren zorabioa sentitzen du. Ezerk ez du zentzurik ez dago gauza presturik bizitzari benetako balioa eman dezaiokeenik. Eta onelakoetan etorkizuna lainotu egin ohi da. Ez dago, orainaldia sakonki eta azkar bizitzea besterik, azken hondarretaraino xurgatuz. Hutsune au «betetzera» letorke droga. Norbait drogazale bihurtzen bada, bestetarako arrazoibide sendorik ez duelako bihurtzen da drogazale. Ezak ezartzen duen gauza da droga» (Gazteen arteko drogaren mundu iluna, 4)

Israeldarrak, Jaungoikuagan dauken ezperientzi sakon bate-tik aleginduko dira, betiko galdera garrantzitsu orrei erantzuten. Agirian dago, Genesisen liburuaren erantzuna ez dala zientziaren erantzuna. Zientzia ez da gauza pregunta orrei erantzuteko. Zientziak esan daike noiz ta zelan agertu zan gizadia baña inoz ezin daike galdera onei erantzun. Ezin dau, gizona zertarako ta norako dan erakutsi. Gizonaren sorrera ta elburua ezin daike teleskopio bategaz edo bisturi bategaz aurkitu. Beste malla batera igon behar da, gizonaren zentzua ta elburua jakiteko. Mailla orretatik darabilguz Bibliako gizonak euren erantzun zorrotza emonik.

Bibliaren lenengo kapituluak ez dira ba, gizadiaren asierako erreportaiak ta gitxiago leen-gurasoen argazkiak. Jakiña, Biblia idazten asi ziranean, ez egoan inor garai artan bitizakorik, beraz ezin esan benetan zer gertatu zan munduaren asieran. Ikusten danez, Bibliaren erantzunak zientzi ta histori maillatik baño sakonagotik erantzuten dautzala gizadiaren sorrerari.

Israeldarrak Jaunagan sinisten dabenez, ezperientzi aundiko sinismenez gañera, Jaungoikoa aurkitzen dabe izadi guztiaren az-

pian. Jaungoikua da gauza guztien egille ta elburu. Bera da sortutako guztiaren egillea. Gizona be, Jaungoikuaren premiña barrik bizi daitekela uste izan arren, Berak egiña da.

*Zelakoa da Biblian agertzen dan gizadia?*

Duintasunez beterik agertzen da gizadia. Sortutako gauza guztien artean garrantzi aundienekoa gizon-emakumeak dira: Jaungoikuak bere arnasa ta bere espiritua emon dautsoz gizon-emakumeari, bere antzeko egiñaz. Orregaitik izadi guztiaren jabe ipinten ditu gizon-emakumeak. Orretarako, gauza guztiei izena ipinteko agintzen dautse.

Biblian pertsonen, animalien ta gauzen izena jakiteak badau bere inportantzia. Baten izena jakitea, aren nagusi izatea nai dau esan. Adan eta Eba deritxo Bibliak leen-gurasoei. Ez da bardin izen orreik eroan edo Aitor ta Amaia eroan. Israeldarrak, Adan deituz, gizona dala lurraren jabe esan nai dabe. Ta Eba esatean, emakumea dala izadiaren arteko bizidunen amarik bikaiñena, gura dabe adierazi.

Alan edo olan, bein baten agertu ziran gizona ta emakumea lur onetan. Orrexek dirala izadiko jaun ta jabe adierazteko, Adan ta Eba izena jartzen dautsez Bibliak. Onela erakusten dasku, gizona ta emakumea bezelakorik ez dagola ezer lur gañean. Bibliarentzat ez dago, ez animalirik, ez landararik, ez zeru izarrik, gizon eta emakumea aiñakorik. Gure ekologistak txiki geratzen dira Bibliaren aurrean. Ona emen, ejenplu bat, gizonaren paregabeko duintasuna zelan abestuten dauan Bibliak:

«Zure izena, Jainko Jauna  
bai miragarri, bai eder mundu zabalean.  
Zure betiko Jauntasuna  
Zeruak baño gorago dago or ortzean.  
Umeak kantuz dozuz, Jauna;  
euren oiua etsaia jarri bai lotsean.  
Zuk egiña da zeru-gana,  
Izarrak eta gau illargia zerupean.  
Alan bada, zer da gizona,

zurturik diñot, zuk maitatzeko ainbestean?

Au gizonaren goitasuna!

Zeuk jarri dozu aingeru maillak jo-añean.

Munduan egin dozu Jauna,

lurreko dana ezarriz aren oñepean.

Eta mendean dauko dana:

ardi eta bei, eta piztiak basartean:

Egaz ta urez dabillana,

egazti ta arrain, zeruan eta urganean.

Zure izena, Jainko Jauna:

bai arrigarri, bai eder mundu zabalean! (S. 8,1-10)

Konputadorak edo ordenadoreak edo robotak zer dira gizonaren adimenaz konparatuz? Gañera, adelantu guztiak gizonak egiñak dira. Munduko aurrerapenak ikustean, gizonaren inteligenza nabaritzen da. Adelantu barri baten azpian, gizon beargin eta argitsu baten burua dago. Baña nork emon eutson, orain milla milloi edo urte geiago gizonari buru ori? Berak, gizonak, egin ete ebazan bere burua, bere begiak edo bere biotz eta bere guntzurrunak? Guzti ori tximiñoengandik datorrela? Tximiñoak izan ete dira gure burua ta gure begiak asmatu dabezan piztiak? Eziran izan ganau makalak! Ta Tximiñoiei nondik? Berez? Errezago da itsas erdian itoten dagoan bat, bere buruko uletatik gorantza tiretuta-salbatea gizadia berez, ezerezetik, sortu dala onartzea baño!

Buru pixkat daukanantzat, zentzun geiago dauko Jaungoikuagandik gauza guztiak datoza sinistreak -Bibliak diñoanez- ez sinistreak baño. Beti izango da arrazoizkoago, Jaunagan sinistrea ez sinistrea baño. Ateo izateak ez dauko bururik ez zentzunik! Bidezkoago Jaungoikoagan sinistrea, Bera ukatzea baño! Sinistreak ez da ezer galtzen, bai osterana dana irabazi, gizadiaren zentzuna Jaunagan aurkituz. Berarengan ez sinistreak, danak galtzera garoaz -dinosku Blas Pascal jakintsuak-. Iñondik be ez dauko zentzunik Jaungoikua ukatzeak, bai osterana berarengan sinistreak. Bakarrik «eroak diño biotzaz: «Ez da Jaungoikorik». (S. 13)

*A. Olea*